



## GAUZAK DIRENA BALIRA [Habanako gaukaria]

Joseba Sarrionandia

*Upaingo* 41  
ISBN: 978-84-9172-208-3  
2020. urtea  
13x19 cm / 320 or.

18,00 €

Egiten du inork lo kartzelatik urkaberan daraman gurdian? –galdetzen zuen John Donnek–. Guk, oster, erdi oharkabean egiten dugu normalean amaren sabeletik edonongo hilobira arteko bidea.

Gauzak direna balira literaturaren bidezko itzartasun ariketa da. Izan dezagun arreta eta ardura behintzat, kondenatuta gaudenez gero.

Idazkera eta liburu molde baten hirugarren parte da. Bizitzea ez al da oso arriskutsua? izan zen lehenengoa, Airea ez da debalde bigarrena, eta Gauzak direna balira hau da azkena. Habanako gaukaria azpigituluarekin heldu den trilogia. Gaukaria: neologismo natural horrek iradokitzen du iluntasunari eta lozorroari kendutako izkribuak direla.

Habanako bazter-auzo batean bizi da idazlea 2019ko urritik 2020ko pandemiaren udaberrira arte. Baina, bere gogoetak egunerokotasunetik hedatzen dira espazioan eta denboran. Saiakera politiko eta filosofikoa (isonomia, isegoria, isomoiria eta isotimia) saiakera historiko eta literarioarekin (Prospero, Kaliban, Ariel, Saikoratz) harizatzen da. Iragan koloniala eta propietarista presente dago gizartean, gizajaletasuna desagertuko dela ematen duen arren, gizakia ez zaiolako gustatzen gizakiari. Deskribaketatzat ala mikroipuintzat har daitezkeen pasarteak daude (agureari poliklinikora laguntzen dion tximeletarena, edo, apagoian agertzen den kokuioarena). Antilletako hitzez (mamei, batei, bohio, baje, jaba, nasobuko), eta bertako ahaztuez (hain gabe, haindu) aberastuz doa euskara.

Baina, literaturaren epidiktikotasunaz mesfidatzen da autorea, literatura ez delakoan ez edertea ez lehiaketa, baizik kondenatuaren bizitzarekiko arreta...

• • •

**Joseba Sarrionandia Uribelarrea**  
(*Iurreta-Durango*, 1958)

Soziologia eta filologia ikasi zuen. Kartzelan egon zen, 1980tik 1985 arte, eta exilioan dago geroztik. Gaur egun Habanan bizi da.

Haren obra ugariko izenburu batzuk hauek dira: *Narrazioak*, Elkar, Donostia, 1983; *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruña, 1985; *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Pamiela, Iruña, 1985; *Atabala eta euria*, Elkar, Donostia, 1986; *Marginalia*, Elkar, Donostia, 1988; *Ez gara geure baitakoak*, Pamiela, Iruña, 1989; *Ainhoari gutunak*, Elkar, Donostia, 1990; *Ifar aldeko orduak*, Elkar, Donostia, 1990; *Hezurrezko xirulak*, Elkar, Donostia, 1991; *Han izanik hona naiz*, Elkar, Donostia, 1992; *Gartzelako poemak*, Susa, Zarautz, 1992; *Miopeak*, bizikletak eta

*beste langabetu batzuk*, Erein, Donostia, 1995; *Hnuy illa nyha majah yahoo*, Elkar, Donostia, 1995; *Hitzen ondoeza*, Txalaparta, Tafalla, 1997; *Hau da ene ondasun guzia*, Esan Ozenki/Txalaparta, Tafalla, 1999; *Lagun izoztua*, Elkar, Donostia, 2001; *Kolosala izango da*, Txalaparta, Tafalla, 2003; *Akordatzan*, Txalaparta, Tafalla, 2004; *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak*, Pamiela, Iruña, 2008; *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako*, Hik hasi, Donostia, 2010; *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela, Iruña, 2010; *Lapur banden etika ala politika?*, Pamiela, Iruña, 2015; *Hilda dago poesia? / ¿La poesía está muerta?*, Pamiela, Iruña, 2016; *Bizitzea ez al da oso arriskutsua?*, Pamiela, Iruña, 2018; *Gure oroitzapenak*, Elkarlanean, Donostia, 2018; *Airea ez da debalde*, Pamiela, Iruña, 2019.

